| GETXOKO UDALBATZAK LEHENENGO DEIALDIAN 2011KO IRAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 27 DE SEPTIEMBRE DE 2011. |
|---|---|
| ============================= | ============================= |
| **B I L D U T A K O A K** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi Jn.

| **ALKATEORDEAK** | **TENIENTES DE ALCALDE** |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
Ana Helguera Líbano (EAJ/PNV)

| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |
|---|---|

Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV).
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV).
Kepa Miñambres Llona (EAJ/PNV).
Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV).
Itziar Epalza Urkiaga (EAJ/PNV).
Marisa Arrue Bergareche (PP).
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Jesús Toca Toña (PP).
Raquel González Díez-Andino (PP).
Iñaki Gamero Delgado (PP).
Javier Ruiz Egaña (PP).
Jone Ruiz De Eguilaz Salazar (PP).
Fco. Javier Elorza Hormaechea (PP)
Ana Basilio Carnicer (PP).

Maitane Nerekan Umaran (BILDU).
Bingen Mirena Saitua Iruretagoiena (BILDU).
Miren Arantza Gutiérrez Paz (BILDU).
Roberto Martín Prieto (BILDU).
Luis José Almansa Rubio (PSE-EE (PSOE)).
Agustín Ruiz Estivariz (PSE-EE (PSOE)).

| IDAZKARI NAGUSIA | SECRETARIO GENERAL |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako hamazazpietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las diecisiete horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen.

Bilkura egiteko legez behar den jende kopurua badagoela egiaztatu ondoren, eguneko aztergaien zerrendako bi gai bakarrak jorratzeari ekin diote, lege araudian aurreikusi bezala, eta emaitza hauxe izan da:

Comprobado que existía número legal suficiente para celebrar la sesión, se pasó a tratar de los asuntos incluidos en el Orden del Día, con el resultado siguiente:

**122.- GETXOKO UDALA ERATZEKOTAN 2011KO UZTAILAREN 26AN AZKENA IZANDAKO BILERAKO AKTA ONESTEA.**

2011ko uztailaren 26an Getxoko Udalbatzak egindako aurreko ohiko bilkuraren Akta onartu zen.

**122º.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 26 DE JULIO DE 2.011.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 26 de julio de 2011.

**OGASUN, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPEN, GIZA BALIABIDE, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA.**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y EUSKERA.**

**123.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA GEHIGARRIZKO**

**123.- DACIÓN DE CUENTA DE VARIOS DECRETOS DE**

**ERANSTEAREN BIDEZ AURREKONTUA ALDATZEN DUENA.**

Ogasun, Kontuetako, Ekonomia Sustapeneko, Giza-Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordearen proposamenez, honako hau erabaki zen:

Kreditu gehigarriaren bidez aurrekontua aldatzen duten dekretu hauen berri ematea:

2011ko uztailaren 18ko 3913 Dekretua: 10.839,71 euro.

2011ko uztailaren 28ko 4107 Dekretua: 90.000 euro.

2011ko abuztuaren 8ko 4186 Dekretua: 55.000 euro.

**MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE CRÉDITO ADICIONAL.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskera se acordó:

Quedar enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante crédito adicional:

Decreto nº 3913 de 18 de julio de 2011 por un importe de 10.839,71 euros

Decreto nº 4107 de 28 de julio de 2011 por un importe de 90.000 euros

Decreto nº 4186 de 8 de agosto de 2011 por un importe de 55.000 euros

**124.- HAINBAT DEKRETUEN BERRI EMATEA TRANSFERENTZIEN ERABILPENAREN BIDEZ AURREKONTUA ALDATZEN DUENA.**

Ogasun, Kontuetako, Ekonomia Sustapeneko, Giza-Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordearen proposamenez, honako hau erabaki zen:

Kreditu-transferentziak erabilita aurrekontua aldatzen duten dekretu hauen berri ematea:

2011ko uztailaren 22ko 3963 Dekretua: 3.000 euro.

**124.- DACIÓN DE CUENTA DE VARIOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskera se acordó:

Quedar enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias de crédito:

Decreto nº 3963 de 22 de julio de 2011 por un importe de 3.000 euros

2011ko irailaren 15eko 4875 Dekretua: 59.000 euro.

Decreto nº 4875 de 15 de septiembre de 2011 por un importe de 59.000 euros

**HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA.**

**125.- "NEGURI"-11.1 EXEKUZIO UNITATERAKO XEHETASUN AZTERLANA BEHIN BETIKO ONTZAT EMATEA, FORMULATUTAKO ALEGAZIOEN EBAZPENAREKIN ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN KULTUR SAILAK EGINDAKO ZEHAZTASUNEKIN.**

Proposamena irakurri ondoren, bozketa egin da, eta emaitza honako hau izan da: 10 aldeko boto EAJrenak eta 15 abstentzio, PP, Bildu eta PSE-EErenak.

Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak proposatuta, ondorengoa erabaki zen gehiengoz:

LEHENENGOA.-
Ez onartzea, ondoren igorriko diren eta espedientean jasota dauden txostenak kontuan hartuta, PIEDAD VILLA ALDECOA andreak eta beste batzuek (3.488/2.011 zk.), MANUEL VILLA ALDECOA jaunak (3.708/2.011 zk.) eta ELENA URRUTIA ARTIACH andreak eta beste batzuek (4.053/2.011 zk. ) egindako alegazioak; alegazio horiek 725. erabakiaren aurka jarri ziren, zaina 2010.12.14ko Tokiko Gobernu Batzordeak hartu zuen. Horren bidez hasierako onarpena eman zitzaion "Neguri" 11.1 Exekuzio Unitateko sestra gaineko nahiz azpiko eraikuntza bolumena doitzeko Xehetasun

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE**

**125.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PARA LA UNIDAD DE EJECUCIÓN 11.1-"NEGURI", CON RESOLUCIÓN DE LAS ALEGACIONES FORMULADAS Y LAS MATIZACIONES APUNTADAS POR EL DEPARTAMENTO DE CULTURA DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA.**

Tras darse lectura a la propuesta se procede a la votación obteniendo 10 votos a favor, PNV y 15 abstenciones PP, Bildu, PSE-EE.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios y Medio Ambiente, se acordó por mayoría:

PRIMERO.-
I.- Desestimar, de conformidad con los informes obrantes en el expediente, de los que se dará traslado, las alegaciones formuladas por DÑA. PIEDAD VILLA ALDECOA Y OTRAS (nº 3.488/2.011), D. MANUEL VILLA ALDECOA (nº 3.708/2.011) y DÑA. ELENA URRUTIA ARTIACH Y OTROS (nº 4.053/2.011), frente al acuerdo nº 725, adoptado por la Junta de Gobierno Local el 14.12.10, por el que se aprueba, con carácter inicial, el Estudio de Detalle presentado para ajustar el volumen edificatorio tanto sobre como bajo rasante en la Unidad de Ejecución 11.1-"Neguri", toda vez que las cuestiones planteadas

Azterketari; izan ere, arazo guztiak kudeaketa-prozesuan ebatzi behar dira.

II.- Behin betiko onarpena ematea EUGENIO SOLANO ALDECOA jaunak eta beste batzuek aurkeztutako Xehetasun Azterketa, "Neguri" 11.1 Exekuzio Unitateari dagokion lurzoruaren titulartasunaren %90,334 ordezkatzen dutena. Horren helburua da, "Neguri" 11.1 Exekuzio Unitateko sestra gaineko nahiz azpiko eraikuntza bolumena doitzea; horretarako, dagokion Testu Bategina aurkeztu beharko da, zeina bat etorri beharko den Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Departamentuak emandako txostenarekin; bertan adierazten denez, "Neguri Etorbideko "Villa Leonor" eraikinera sartzeko egungo ataria errespetatu egin behar da, hori baita lursail horretara jotzeko sarbide nagusia, eta eraikinaren definizioan jasotan baitago".

III.- Erabaki hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean Argitaratzea.

IV.- Interesatuei honako jakinarazpenaren berri eman eta horren aurka aurkeztu ditzaketen errekurtsoak azaltzea.

BIGARREN.- Alkateari dagokion ahalmena ematea, honako erabakiak exekutatzeko beharrezkoak diren ebazpenak hartu ditzan.

han de ser resueltas en el proceso de gestión.

II.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle que presentan D. EUGENIO SOLANO ALDECOA y otros, que representan el 90,334% de la titularidad dominical del suelo comprendido en la Unidad de Ejecución 11.1-"Neguri", al objeto de ajustar el volumen edificatorio tanto sobre como bajo rasante en la Unidad de Ejecución, debiendo presentar el correspondiente Texto Refundido en el que se tendrá en cuenta, de conformidad con el informe emitido desde el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, la necesidad de que "se respete que la portalada de acceso rodado actual de "Villa Leonor" de la Avda. de Neguri, que se desplaza, deba ser de acceso exclusivo a la parcela de "Villa Leonor", como parte integrante de la definición de la misma".

III.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia.

IV.- Notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

SEGUNDO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

**126.- SANTA EUGENIA 14-16, S.L. ENPRESAK LANDENE ETA ERREMENTARIENA KALEEN ARTEAN DAUDEN ERAIKINAK ORDEZKATZEKO AURKEZTUTAKO XEHETASUN AZTERLANA BEHIN BETIKO**

**126.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PARA LA SUSTITUCIÓN DE EDIFICACIONES EXISTENTES ENTRE LAS CALLES LANDENE Y ERREMENTARIENA, PRESENTADO POR LA MERCANTIL SANTA**

**<u>ONTZAT EMATEA, FORMULATUTAKO ALEGAZIOEN EBAZPENAREKIN</u>**

Proposamena irakurri ondoren, bozketa egin da, eta emaitza honako hau izan da: 10 aldeko boto EAJrenak , 11 aurkako boto PP, eta PSE-EErenak eta 4 abstentzio Bildurenak.
Ondorioz, Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen proposamena onartu gabe geratu da. Proposamenean ondorengoa esaten zen:

"LEHENENGOA.-

I.- Ez onartzea OSCAR ALONSO HERRAN jaunak (22.946/2.011), FELIX ANGEL MUNTEA LARUMBE jaunak (24.812/2.011) eta LUIS MANUEL AZCUNE DEL BURGO jaunak (26.605/2.011) 219. erabakiaren aurka egindako alegazioak. Erabaki hori 2011.05.03ko Tokiko Gobernu Batzorde bidean hartu zen; bertan, FABIAN MEABE BERNARDO jaunak SANTA EUGENIA 14-16, S.L. enpresaren ordezkaritzan aurkeztutako Xehetasun Azterketari hasierako onarpena eman zitzaion, Landene eta Errementeriena kaleen artean dauden eraikinen ordez beste berri bat jartzeko. Izan ere, alegazio idazkien jasotako arazoen izaera zibila dute; beraz, ez dagozkie Udalaren eskumenei.

II.- Behin betiko onarpena ematea FABIAN MEABE BERNARDO jaunak SANTA EUGENIA 14-16, S.L. enpresaren ordezkaritzan aurkeztutako Xehetasun Azterketari hasierako onarpena eman zitzaion, Landene eta Errementeriena kaleen artean dauden

**<u>EUGENIA 14-16, S.L. CON RESOLUCIÓN DE LAS ALEGACIONES FORMULADAS</u>**.

Tras darse lectura a la propuesta se procede a la votación obteniendo 10 votos a favor PNV, 11 votos en contra PP y PSE-EE y 4 abstenciones de Bildu.

En consecuencia se deniega la aprobación a la propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios y Medio Ambiente, que indicaba:

"PRIMERO.-
I.- Desestimar las alegaciones formuladas por D. OSCAR ALONSO HERRAN (22.946/2.011), D. FELIX ANGEL MUNTEA LARUMBE ( 24.812/2.011) y D. LUIS MANUEL AZCUNE DEL BURGO (26.605/2.011), frente al acuerdo nº 219, adoptado por la Junta de Gobierno Local el 03.05.11, por el que se dispone la aprobación inicial del Estudio de Detalle presentado por D. FABIAN MEABE BERNARDO, en nombre y representación de SANTA EUGENIA 14-16, S.L., para la sustitución de las edificaciones existentes entre las calles Landene y Errementeriena por un nuevo edificio. Todo ello porque las cuestiones suscitadas en los escritos de alegaciones han de considerarse de carácter civil, ajenas, en todo caso, a la competencia que le es propia a este Ayuntamiento.

II.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por D. FABIAN MEABE BERNARDO, en nombre y representación de SANTA EUGENIA 14-16, S.L., para la sustitución de las edificaciones existentes entre las calles Landene y

eraikinen ordez beste berri bat jartzeko; betiere, hasierako onarpenean jasotako baldintzak betez gero, zeinak Testu Bateginean gehitu beharko diren.

Errementeriena por un nuevo edificio, con las matizaciones apuntadas a la aprobación inicial, que habrán de ser incorporadas en el correspondiente Texto Refundido.

III.- Erabaki hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean Argitaratzea.

III.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia.

IV.- Interesatuei honako jakinarazpenaren berri eman eta horren aurka aurkeztu ditzaketen errekurtsoak azaltzea.

IV.- Notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

BIGARREN.- Alkateari dagokion ahalmena ematea, honako erabakiak exekutatzeko beharrezkoak diren ebazpenak hartu ditzan."

SEGUNDO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos."

**127.- AZPIEGITURA, S.A.U. IZENAREN ALDAKETAREN BERRI EMATEA. BAKE EDER LURZATIAREN GAINEAN LURRAZAL-ESKUBIDEA AZPIEGITURA, S.A.U. FORU-ELKARTEAREN ALDE EZARRI ZEN, BISCAYTIK PROIEKTUA GARATZEARREN.**

**127.- DACIÓN DE CUENTA DEL CAMBIO DE DENOMINACIÓN DE AZPIEGITURAK S.A.U. TITULAR DE UN DERECHO DE SUPERFICIE SOBRE EL INMUEBLE MUNICIPAL "BAKE EDER" Y DEL CONTRATO DE ARRENDAMIENTO DEL INMUEBLE PARA EL DESARROLLO DEL PROYECTO BISCAYTIK.**

Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak proposatuta, ondorengoa erabaki zen:

A propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios y Medio Ambiente, se acordó:

LEHENENGO.- Honakoaren berri izatea: AZPIEGITURA S.A.U., (IFK: A-48165393, AZPIEGITURAK S.A.U. enpresan bilakatu dela, (IFK: A-95616892). Azken horrek, beraz, 2009.04.27ko 70 zenbakidun osoko Bilkura bidez emandako azalera eskubidetik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak subrogatuko ditu.

PRIMERO.- Quedar enterados de la transformación de la mercantil AZPIEGITURA S.A.U., con C.I.F. A-48165393, en AZPIEGITURAK S.A.U., con C.I.F. número A-95616892, quedando subrogada ésta última en todos los derechos y obligaciones dimanantes del derecho de superficie otorgado por medio de Acuerdo Plenario nº 70 de 27.04.2009.

BIGARREN.- Era beran, jakitun izatea,

SEGUNDO.- Quedar igualmente

AZPIEGITURAK S.A.U. eta BiskayTIK fundazioaren artean sinatutako errentamendu kontratuaz, BiskayTIK proiektua garatzeko helburua duena.

enterados del contrato de arrendamiento a suscribir entre AZPIEGITURAK S.A.U. y la Fundación BiskayTIK a fin de desarrollar el Proyecto BiskayTIK.

HIRUGARRENA. - Udalaren Eskubide eta Ondasunen Inbentarioan AZPIEGITURAK S.A.U. islatzea, aipatu azalera eskubidearen titularra den heinean.

TERCERO.- Reflejar en el Inventario Municipal de Bienes y Derechos a AZPIEGITURAK S.A.U. como titular del citado derecho de superficie.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**MOCIONES, INTERPELACIONES Y RUEGOS Y PREGUNTAS**

**128.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ESPAINIAKO 2012KO TXIRRINDULARITZA-ITZULIAREN HELDUERA EDO ETA IRTEERA ESKATZEKO.**

**128.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/SOLICITUD DE LLEGADA Y/O SALIDA DE LA VUELTA CICLISTA A ESPAÑA, 2012.**

Jesus Toca jaunak ondorengo mozioa irakurri du

Jesús Toca da lectura a la siguiente moción:

*"2009ko azaroko osoko bilkuran, PP Alderdiko Udal Taldeak mozio bat aurkeztu zuen, Txirrindularitza Itzuliari eskatzeko 2010eko itzulian Getxo etapa baten iritsiera/irteera puntua izate aldera.*

*"En el pleno de noviembre del año 2009 el Grupo Municipal Popular presentó una moción en la que se acordaba solicitar a la Vuelta Ciclista la posibilidad de ser punto de llegada/salida de una etapa de la vuelta 2010.*

*Proposamena Osoko Bilkuren Areto honetako gehiengo osoarekin onartu zen, Udal Talde Popularraren eta Udal Talde Sozialistaren botoekin.*

*Dicha propuesta fue aprobada por mayoría absoluta de este salón de plenos con los votos del Grupo Municipal Popular y del Grupo Municipal Socialista.*

*Nahiz eta onartua izan, Alkateak ez zuen akordioa bete, eta, ondorioz, ez zuen eskatu itzuli horretako etapa bat Getxon amaitzeko. Era horretan, gure udalerria sustatzeko aukera galdu dugu, eta Getxoko zaleei horretaz gozatzeko aukera kendu zaie.*

*A pesar de su aprobación el Alcalde, incumpliendo un acuerdo plenario, no llegó a solicitar la llegada de una etapa de dicha vuelta, por ello hemos perdido una gran oportunidad de promoción de nuestro municipio y se ha privado a los aficionados de Getxo de disfrutar de este gran evento.*

*Itzulia irailaren 9an eta 10ean Bilbon izan denean, herritarren parte-hartzea izugarria*

*Todos hemos podido comprobar el gran éxito de participación ciudadana, la gran repercusión mediática. y la gran promoción*

*izan da, komunikabideetan oihartzun handia izan du eta Bilbo ikaragarri sustatu da. Hori denok egiaztatu ahal izan dugu.*

*de Bilbao que ha supuesto la celebración de la vuelta en Bilbao los pasados 9 y 10 de septiembre .*

*Era horretan, horrelako garrantzia duen gertaera bat ikusteko eta kontatzeko aukera galdu dugu aurten. Hori dela-eta, aukera gehiago ez ditugula galdu behar uste dugu. Modernitatean eta sustapen turistikoan sartu behar dugu, eta datorren urtean Espainiako txirrindularitza-itzuliaren etapa bat Getxon amaitu eta/edo abiatu dadila eskatu behar dugu.*

*Hemos perdido una oportunidad de poder ver y contar con un evento de esta magnitud el presente año, por lo que creemos que no podemos perder más oportunidades y hay que subirse al tren de la modernidad y de la promoción turística, solicitando una llegada y/o salida de etapa de la vuelta ciclista a España del próximo año.*

*Itzuliaren zuzendariak esan zuenez, ibilbidea itxi gabe dago, eta soilik erabaki dute itzulia Iruñean abiatuko dela abuztuaren 18an. Beraz, gainerako ibilbidea irekita dago. Nolanahi ere, berandu ibiliz gero, gainerakoei aurre hartu eta etapa 2013. urterako eskatu behar genuke.*

*No olvidemos que, como mencionó el Director de la vuelta, el recorrido no está cerrado y sólo se tiene tomada la decisión de que el inicio será en Pamplona el 18 de Agosto, estando abierto el resto del recorrido, de todas formas si ya fuésemos tarde en la petición deberíamos adelantamos al resto solicitando una etapa para el año 2013.*

*Hori guztia dela-eta, Getxoko ALDERDI POPULARREKO UDAL TALDEAK ondorengo AKORDIO-PROPOSAMENA ekarri du osoko bilkurara, eztabaidatu eta onartua izan dadin:*

*Por todo ello el GRUPO MUNICIPAL POPULAR de Getxo eleva ante este pleno para su. debate y aprobación la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:*

*LEHENA.- Getxoko Udala "Espainiako Txirrindularitza Itzulia" erakundera zuzenduko da 2012. edizioko etapa bat edo, ezinezkoa balitz, 2013koa, Getxon amaitzea/hastea eskaintzeko.*

*PRIMERO.- El Ayuntamiento de Getxo se dirigirá a la organización de la "Vuelta Ciclista a España" para mostrar su ofrecimiento de acoger la llegada/salida de una etapa de la edición 2012 o si fuera imposible, de la edición 2013.*

*BIGARRENA.- Mozio honen berri ematea udal-komunikabideetan".*

*SEGUNDO.- Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales."*

Jarraitzeko, udal-taldeek horren inguruan zer-nolako iritzia duten galdetu du. Irekiagoak diren Udalek, baita EAJk gobernatutakoek ere, etapa bat eskatu dute, eta Bilbokoak arrakasta handia izan du. Horrekin ez du kirola

Continúa indicando que espera la opinión de los grupos municipales al respecto. Que Ayuntamientos más abiertos, incluso gobernados por el PNV, han solicitado una etapa y que la celebrada en Bilbao ha sido todo un éxito, que no plantea politizar el

politizatu nahi, Getxorentzat positiboa eta oihartzun handikoa izan den gertaera sortu baizik. Azkenik, Alkateari eskatu dio eskaera hori zuzentzeko.

Luis Almansak, talde sozialistaren izenean adierazi du, 2009an egindako Osoko Bilkura batean adierazi zuten gisa, oraingoan ere mozioaren alde bozkatuko dutela, Getxorentzat onuragarria izango dutela uste duelako.

Maitane Nerekanek, Bilduren izenean, adierazi du ezezkoa bozkatuko dutela, talde popularrak esaten duenaren aurka, mozioaren atzean politika dagoela uste baitute, Getxoren "espainoltasuna" nabarmendu nahi izateagatik. Bilduren iritziz, udalerriko bizilagunek eta elkarteek sortutako kirol saioak bultzatu behar dira eta ez kanpoko probak finantzatu.

Alvaro Gonzalezek, gobernu taldearen izenean, adierazi du 2009. urtean Osoko Bilkurak gehiengoz erabaki zuenean Itzuliaren antolakuntzari etapa bat Getxon hastea eta amaitzea eskatzea, Udalak, akordio hori betetzeko, erakunde antolatzaileari mozioaren emaitza helarazi ziola, eta erakundeak ez zuela gerturatzeko inolako pausurik eman. Halaber, adierazi du, Kirol Sailak eta Getxo Kirolakek irizpide batzuk ezarrita dituztela kirol-gertaerak antolatzen eta finantzatzen parte hartzeko; alegia, saio horietan parte hartzea edo saio horiek sustatzea udalerrian errotuta dagoen kirol-elkarteak. Horrelaxe egin ohi dira maila handiko kirol-probak; baita nazioartekoak ere txirrindularitza arloan. Baldintza hori soilik ez du

deporte sino generar un evento que sería positivo para Getxo y de gran repercusión. Finaliza pidiendo al Alcalde que lidere esa solicitud.

Luis Almansa, en nombre del grupo socialista, manifiesta que en coherencia con lo que manifestaron en un Pleno celebrado en el año 2009, también esta vez votarán a favor de la moción que considera que tiene un contenido favorable para el municipio de Getxo.

Maitane Nerekan, en nombre de Bildu, manifiesta que votarán negativamente ya que, en contra de lo que manifiesta el grupo popular, estiman que el fondo de la moción es una cuestión política que lo que pretende es remarcar la "españolidad" de Getxo. Transmite que la opinión de Bildu es favorable a apoyar eventos deportivos que surjan de los vecinos y asociaciones del municipio y no financiar pruebas ajenas.

Álvaro González, en nombre del equipo de gobierno, indica que cuando el año 2009 el Pleno por mayoría acordó solicitar a la organización de la Vuelta el inicio y final de una etapa, el Ayuntamiento cumpliendo el acuerdo comunicó a la entidad organizadora el resultado de la moción sin que por parte de ésta se hubiera realizado ningún tipo de acercamiento. Indica también que desde el Área de Deportes y de Getxo Kirolak existen unos criterios ya establecidos para colaborar en la organización y financiación de eventos deportivos y es que en los mismos participe o estén promovidos por una sociedad deportiva con arraigo y presencia en el municipio y que así se vienen realizando pruebas deportivas de gran nivel, incluso internacional en el ámbito ciclista y que únicamente se

betetzen kirol-espezialitate hasiberriko probak direnean. Getxon nazioarteko txirrindularitza-proba bat egiten da, eta, zehazki, aurten, Itzulia Euskadira iritsi denez, Eusko Jaurlaritzak proba horretarako nahiz Euskadiko beste proba batzuetarako ematen zituen dirulaguntzak murriztu egin dira. Gobernu-taldearen lehentasuna da tokiko klubekin eta oinarrizko kirolarekin lan egitea; beraz, ez dituzte bultzatuko tokiko proben laguntzak murrizten dituzten jarduerak.

exime de ese requisito cuando se tratan de pruebas en especialidades deportivas incipientes. Recuerda que en Getxo existe una prueba ciclista internacional y que concretamente este año la presencia de la Vuelta en Euskadi ha supuesto que las subvenciones que el Gobierno Vasco venía dando a esa prueba, como a otras pruebas de Euskadi, se han visto reducidas. Manifiesta que la prioridad del equipo de gobierno es trabajar con los clubes locales y con el deporte base y no van a plantear actuaciones que van a suponer recortar las ayudas a las pruebas locales.

Jesus Tocak adierazi du ez duela ulertzen zer-nolako harremana dagoen beste kirol-probek izan dezaketen finantzaketaren eta Espainiako Itzuliko etapa bat Getxon izateak duen interes objektiboaren artean, bertako probekin bat egiten ez duten egunetan, gainera. Udala ideiak bilatzen ari da etengabe udalerria sustatzeko, eta, horretarako, itsasoa, zinea, gastronomia, folka eta abarren inguruko jardunaldiak antolatzen dira. Horiek denak zuzenak dira, baina ukaezina da Espainiako Txirrindularitza Itzuliko etapa bat Getxon hasteak eta amaitzeak izango lukeen arrakasta, Bilbon gertatu den moduan; horrek izugarri sustatuko luke Getxo. Bilduri soilik esan nahi dio ez duela harritzen jarrerak, baina, koherenteak izango balira, Getxoko klubei eskatu beharko liekeela Espainia mailan parte hartzen duten ligetatik erretiratzeko.

Jesús Toca manifiesta no entender qué relación existe entre la financiación que puede existir a otras pruebas deportivas y el interés objetivo que tendría la presencia de una etapa de la Vuelta a España en Getxo, además en fechas no coincidentes con ninguna prueba propia. Recuerda que por parte del Ayuntamiento se están buscando constantemente ideas que promocionen el municipio y para ello se organizan jornadas relativas al mar, de cine y gastronomía, de folk, etc. que le parecen correctas, pero lo que le parece indiscutible es que un evento como la llegada y salida de una etapa de la Vuelta Ciclista a España sería un éxito tal como ha sido en Bilbao y supondría una promoción muy importante de Getxo. A Bildu únicamente le indica que no le sorprende su posición pero que si fueran coherentes pedirían a los clubes de Getxo que se retiren de las ligas españolas en las que participan.

Mozioa bozkatu dute, eta baztertua izan da ondorengo emaitza medio: PPren eta PSE-EEren aldeko 11 boto eta EAJren eta Bilduren aurkako 14 boto.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 11votos a favor PP, PSE-EE y 14 votos en contra PNV, Bildu.

**<u>129.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, GETXON PTP EZ BALIATZEKO</u>.**

Andrade jaunak ondorengo mozioa irakurri du

*"Tokiko Gobernu Batzordeak 2011ko uztailaren 26ko bilkuran, 374. puntuan, ondorengo erabakia hartu zuen:*

*374.- GETXOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN NAGUSIAREN BERRIKUSPENA IDAZTEKO ETA UDAL AHOLKULARITZA ESKAINTZEKO LANEN ESLEIPENA*

*"LEHENA: ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA SA izen sozialari (IFK: A4827866-7) esleitzea GETXOKO UDALERRIKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN NAGUSIAREN BERRIKUSPENA IDAZTEKO ETA UDAL AHOLKULARITZA ESKAINTZEKO LANAK, 830.000 euroren truke (149.400 euro %18ko BEZarenak), eta gastua Udal Aurrekontuaren kontura egitea, ondorengo balorazio-koadroaren arabera…*

*Bestalde, Getxoko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren berrikuspena idazteko eta udal-aholkularitza eskaintzeko lanak kontratatzeko baldintza teknikoen Pleguan, besteak beste, ondorengoa ezartzen da:*

*1. FASEA.- "Lurralde Plangintzaren analisia:*
*Fase honetan, Bilbo Metropoliko Lurralde Plan Partzialaren analisi xehatua egingo da… … udalerria lurralde moduan edo zuzenean hartzen duenean…*

**<u>129.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/NO A LA APLICACIÓN DEL PTP EN GETXO.</u>**

El sr. Andrade da lectura a la siguiente moción:

*"El punto 374 de la junta de Gobierno Local de fecha 26 de Julio de 2011 adoptó el siguiente acuerdo:*

*374.- ADJUDICACIÓN DE LOS TRABAJOS DE REDACCIÓN Y ASESORAMIENTO MUNICIPAL DE LA REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO.*

*"PRIMERO: Adjudicar a la razón social ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA BULEGOA, S.A., con CLF.: A4827866-7, los TRABAJOS DE REDACCIÓN Y ASESORAMIENTO MUNICIPAL DE LA REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DEL MUNICIPIO DE GETXO, por importe de 830.000 euros, más 149.400.-euros correspondiente al 18% de I.V.A., imputándose el gasto a cargo del Presupuesto Municipal, de acuerdo con el siguiente cuadro de valoración…..*

*Por su parte el pliego de condiciones técnicas para la contratación de los trabajos de redacción y asesoramiento municipal de la revisión del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Getxo establece, entre otras, lo siguiente:*

*FASE 1.-" Análisis del Planeamiento territorial:*
*En esta fase se realizará un análisis detallado del Plan Territorial Parcial del Bilbao Metropolitano……que afecten al término municipal de manera territorial o*

*directa.....*

*… … Lurralde plangintzako zehaztapenen edukiaren analisia zehazteko, plan bakoitzak Getxoko etorkizuneko hirigintza-antolamendurako ekarriko dituen afektazio eta loturen inguruko txostena egingo da; era horretan, afekzio kuantitatiboak eta kualitatiboak kontuan izango dira, herriko jarduera ezberdinak edo erabilerak udalerrian ezartzearen inguruan"…*

*.. .. ... Como concreción del análisis del contenido de las determinaciones del planeamiento territorial se realizará un informe de las afecciones y vinculaciones que cada uno de los planes establece para la futura ordenación urbanística de Getxo, contemplando las afecciones cuantitativas y cualitativas en relación con el establecimiento de las diversas actividades o usos del pueblo en el municipio "...*

*……"Lurralde Plan Partzialaren gaineko txostenean lurralde mailako loturen eta hiri garapenaren (bizilekuak nahiz jarduera ekonomikoak) kuantifikazioaren analisi xehatua jasoko da. Horrela, Plan Orokorraren gainean, hiriaren etorkizuneko garapenaren tamaina eta ezaugarriak definitzeko, ezartzen duen maniobra-marjinari buruzko interpretazio-irizpideak ezarriko dira.*

*….."El informe sobre el Plan Territorial Parcial deberá contener un análisis detallado de sus vinculaciones territoriales y de la cuantificación del desarrollo urbano, tanto residencial como de actividades económicas, estableciendo los criterios interpretativos sobre el margen de maniobra que establece sobre el Plan General para definir la magnitud y características del futuro desarrollo urbano.."*

*Azken finean, esleipen horren bidez, gobernu-talde honek ez du kontuan hartu Getxoko herriaren nahia, askotan agertu baita Getxon LPP aplikatzearen aurka. Halaber, Getxon 8.000 etxebizitza eraikitzearen aurka azaldu da. Gure ustez, Getxoren etorkizuneko definizioa gure udalerriak berak eta bertako premiek sortu behar dute, beste erakundeek nahi duten etxebizitza-kopuruaren edo udalerri-motaren gaineko ezarpenak onartu gabe.*

*En definitiva, con esta adjudicación, este equipo de gobierno vuelve a ignorar la voluntad del pueblo de Getxo que reiteradamente se ha manifestado en contra de la aplicación del PTP en Getxo y que también ha rechazado la construcción de 8.000 viviendas en Getxo, a nuestro entender, la definición del futuro de Getxo tiene que surgir de nuestro propio municipio y de sus necesidades, sin admitir imposiciones sobre numero de viviendas o tipo de municipio de ningún otro organismo.*

*Hori guztia dela-eta, Getxoko ALDERDI POPULARREKO UDAL TALDEAK ondorengo AKORDIO-PROPOSAMENA ekarri du osoko bilkurara, eztabaidatu eta onartua izan dadin:*
*LEHENA.- Tokiko Gobernu Batzordeak 2011ko uztailaren 26an onartutako 374. akordioa baliogabetzea.*

*Por todo ello el GRUPO MUNICIPAL POPULAR de Getxo eleva ante este pleno para su debate y aprobación la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:*

*PRIMERO.- Anular el acuerdo número 374 aprobado por la Junta de Gobierno Local. en fecha 26 de julio de 2011*

*BIGARRENA.- Getxoko udalerriko HAPN berrikusteko lanak kontratatzeko baldintza teknikoen plegu berria idaztea, eta bertan ez aipatzea gure udalerrian LPP aplikatzeko beharrik.*

*HIRUGARRENA.- Mozio honen berri ematea udal-komunikabideetan".*

Andrade jaunak adierazi du Getxoko HAPN berrikusteko lanak esleitu eta egiten den lehen Osoko Bilkura dela. Ez zaio ondo iruditu esleitzeko prozesurako 14 hilabete behar izatea. Haren ustez, hori gertatu da gobernu-taldeak gai hau azaldu nahi izan ez duelako hauteskundeak baino lehen, hirigintzako inolako dokumentaziorik ez erakuste aldera. Berriro esan du talde popularra Getxon LPP aplikatzearen aurka dagoela eta Andra Marin 8.000 etxebizitza eraikitzearen aurka ere bai. LPPko edukia okerra dela uste du; izan ere, etxebizitza-premia aztertzeko egiten ari diren udal-azterketen arabera, behar hori LPPn agertzen dena baino dezente txikiagoa da.

Luis Almansak adierazi du gai hori behin baino gehiagotan jorratu dutela Bilkuran, eta talde sozialistak adierazitakoarekin bat egiteko, mozioaren aurka bozkatuko dutela. Zorrotz ukatu du Andra Mariko lursail urbanizagarrietan 8.000 etxebizitza eraikiko direnik, hori EAJk eta EBk sustatutako agiri batean aurkeztu baitzen. LPPn ez da esaten kopuru hori eraiki beharra dagoenik, baizik eta 0tik 3.034 etxebizitzara bitarte aipatzen dira bizitegi-lurzoruan, eta ez dago nahitaez

*SEGUNDO.- Redactar un nuevo pliego de condiciones técnicas para la contratación de los trabajos de revisión del PGOU del municipio de Getxo, en el que no se haga ninguna referencia a la necesidad de aplicar el PTP en nuestro municipio.*

*TERCERO.- Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales."*

El sr. Andrade fundamenta la presentación de la moción en que es el primer Pleno que se celebra tras la adjudicación de los trabajos de revisión del PGOU de Getxo. Critica que el proceso de contratación haya tardado 14 meses y que ello se debe a que el equipo de gobierno no ha querido aflorar esta cuestión antes de las elecciones para evitar presentar ningún tipo de documentación urbanística. Se reafirma en que el grupo popular está en contra de la aplicación del PTP en Getxo y también en contra de la construcción de 8.000 viviendas en Andra Mari. Critica el contenido del PTP por erróneo ya que los estudios municipales que se están realizando sobre necesidades de vivienda determinan unos volúmenes de necesidad bastante inferiores a lo previsto en el PTP.

Luis Almansa manifiesta que esta cuestión se ha tratado repetidas veces en el Pleno y en coincidencia con las manifestaciones que ha formulado siempre el grupo socialista votarán en contra de la moción. Rechaza tajantemente que en los terrenos urbanizables de Andra Mari se vayan a construir 8.000 viviendas ya que esto sólo se planteó en un documento promovido por el PNV y EB, pero que el PTP no obliga a dicho número de construcciones sino que plantea como

izan beharrik Andra Mariko lurzoru urbanizagarrian. LPPko Memoriako 73. orrialdean agertzen den taula aipatu du. Batzuk nahitaez betetzekoak dira; hots, 3.034 etxebizitza 16 urtetan; beste taula batean, berriz, 8.548 etxebizitza aipatzen dira, baina hori ez da loteslea, memorian bertan jasotzen den moduan. Hala eta guztiz ere, PPk behin eta berriz gaia gaizki bideratzen du, lotesleen eta ez lotesleen arteko aldea aipatu gabe, eta hori ez zaio ondo iruditzen. Berriro berretsi du Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren berrikuspenak eragina izango duela Getxoko Udalerrian eta Osoko Bilkuran erabakiko dela zenbat eraikiko den Andra Mariko zona urbanizagarrian. Gogoratu du inguru hori urbanizagarria dela Alderdi Popularrak lurzoruaren inguruan egindako legezko aldaketen arabera, landatar moduan kalifikatu gabeko guztia automatikoki urbanizagarria izango zela adierazi baitzuen, eta, beraz, eraikitzea izango zela. Getxoko etorkizuneko plangintza udalerriko talde politiko guztien, auzotar elkarteen, kaltetuen, eta abarren artean erabaki behar da.

vinculante una horquilla de 0 a 3.034 viviendas en suelo residencial que no necesariamente tienen que ser en el suelo urbanizable de Andra Mari. Se remite a la página 73 de la Memoria del PTP en donde figura una tabla que recoge componentes que son de obligado cumplimiento y que suman 3.034 viviendas en una proyección de 16 años y otra tabla, que asciende a 8.548 viviendas pero que no es vinculante, tal como en la misma memoria se contempla. Critica que pese a ello el PP de manera reiterativa desenfoque la cuestión ocultando la diferencia entre las vinculantes y las no vinculantes. Se reafirma en que la revisión del Plan General de Ordenación Urbana incidirá en el Municipio de Getxo y se determinará en el Pleno cuánto se construirá en la zona urbanizable de Andra Mari, recordando que dicha zona es urbanizable en virtud de las modificaciones legislativas en materia de suelo que introdujo el Partido Popular al indicar que todo lo no calificado de rústico pasaba automáticamente a ser una zona urbanizable y, por tanto, en la que se podía edificar. Cree que el futuro del planeamiento de Getxo debe de decidirse entre todos los grupos políticos, asociaciones vecinales, afectados, etc. del Municipio.

Maitane Nerekanek Bilduren izenean esan du abstenitu egingo direla. Nahiz eta bat etorri LPPean proposatutako etxebizitzen gaineko kritikarekin, uste dute HAPN udalerri mailan egin eta definitu behar dela, bizilagunek parte hartuta. Beharrezkoa da, aurrez, plangintza sektorial ezberdinak eta LPP aztertzea, indarrean dagoen eran kontuan izan behar delako, baina horrekin ez du esan nahi bertan

Maitane Nerekan, en nombre de Bildu, manifiesta que se van a abstener respecto a la moción porque, pese a que comparten las criticas a las viviendas planteadas en el PTP, estiman que el PGOU debe de hacerse y definirse a nivel municipal con participación vecinal. Cree necesario previamente, también, estudiar los diferentes planeamientos sectoriales y el PTP en cuanto que está vigente ha de tenerse

adierazitakoa egin behar denik, jarduera horiek modulatu behar baitira azterketa sektorial ezberdinekin. Udaleko talde gisa, lan egin eta proposatuko dute Bizkaiko Foru Aldundiari eta eskumeneko erakundeei LPP aldatzea eskatzeko.

en cuenta, pero no quiere decir con ello que haya que hacer lo que en el mismo esté planteado, ya que hay que modular dichas actuaciones con los diferentes estudios sectoriales. Como grupo municipal trabajarán y plantearán para que se solicite a la Diputación Foral de Bizkaia y a los organismos competentes que se modifique el PTP.

Joseba Arregik, gobernu-taldearen izenean, adierazi du ez dela egia talde popularrak Andra Marin 8.000 etxebizitza eraikitzearen inguruan egiten duen adierazpena. Gogoratu du abenduaren 13ko Osoko Bilkuran gai hori luze eta zabal eztabaidatu zutela. Mozioaren edukiari dagokionez, Plan Nagusiaren berrikuspenaren agiriaren idazketa teknikoa erredakzio-taldeari esleitu zaio, baina Plan Nagusiaren berrikuspena diseinatzeko irizpideak ere eman egin behar zaizkie. Behin eta berriz esan du LPP dela-eta, ez dagoela Getxon etxebizitzarik eraiki beharrik; premia endogenoak gainditzen direnez, Udaleko Osoko Bilkurak modu askean erabakiko du zenbat etxebizitza eraikiko diren, eta, horretarako, herritarrek parte hartzeko prozesu konplexua behar da. Garrantzitsuena da Getxon etorkizunean zer nahi den jakitea eta gai horren inguruan adostasun zabala lortzea, beharrezko egonkortasuna sortze aldera. Getxon, etorkizunean, iraunkortasun-irizpideak izan behar dira kontuan, gizarte-kohesioa, hazkunde ekonomikoa, enplegua eta abar bezalako irizpideak. Gobernu-taldeak, duela bost urte inguru, udal erantzukizunen ardura hartu zuenean, egin zuen lehendabiziko gauza izan zen efekturik gabe uztea Andra Marin 8.000 etxebizitza eraikitzearen inguruan egin zitezkeen jarduerak. Amaitzeko adierazi du gobernu-taldeak nahi duela akordio

Joseba Arregi, en nombre del equipo de gobierno, indica que es incierta la manifestación que realiza el grupo popular respecto a la construcción de 8.000 viviendas en Andra Mari. Recuerda que en el Pleno del 13 de diciembre se debatió ampliamente sobre la cuestión. En relación al contenido de la moción manifiesta que se ha adjudicado la redacción técnica del documento de revisión del Plan General al equipo redactor, pero al mismo hay que facilitarles los criterios con los cuales deben de diseñarse la revisión del Plan General. Insiste en que el PTP no obliga a construir ninguna vivienda en Getxo que exceda de las necesidades endógenas y que por tanto es libremente el Pleno del Ayuntamiento el que decidirá el número de viviendas a construir y estima que debe de hacerse tras un complejo proceso de participación ciudadana. Le parece que lo importante es centrar el debate en qué Getxo se quiere en el futuro y trabajar en buscar un amplio consenso sobre esta cuestión para generar la estabilidad necesaria y que el Getxo del futuro debe de atender a criterios de sostenibilidad, criterios de cohesión social, de crecimiento económico, empleo, etc. Recuerda también que el equipo de gobierno cuando se hizo cargo de las responsabilidades municipales hace cerca de cinco años, lo primero que hizo fue dejar sin efecto las actuaciones que

batera iristea talde guztiekin Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren berrikuspenari dagokionean.

hubieran podido realizarse en torno a la construcción de 8.000 viviendas en Andra Mari. Finaliza manifestando la voluntad del equipo de gobierno de llegar a un acuerdo con todos los grupos en la revisión del Plan General de Ordenación Urbana.

Eduardo Andradek adierazi du talde popularrak bere hauteskunde-kanpainan garbi agertzen duela Andra Marin 8.000 etxebizitza eraikitzearen aurka daudela; beraz, onartu du ezarpen hori egon badagoela. Gobernu-taldeari kritikatuko dio eta mingarria iruditzen zaio Andra Marin 8.000 etxebizitza eraikitzeko aukera hor izatea LPP Getxon aplikatzean, eta udal autonomia ez defendatzea (talde popularrak hori defendatzen du). Hori dela-eta, HAPNren berrikuspena idazteko baldintzen plegua eskatzen du, kanpoko araudiek baldintzatu gabea. Talde popularrak adierazi du Getxoko bizilagunentzat izango den Getxo nahi duela. Hasiera batean, behar diren etxebizitzak eraiki behar dira hiri-lurzoruan, etxebizitza hutsak merkatura ateratzearekin batera. Behin bide horiek agortzen direnean, udalerriko gainerako lurzoruan egin behar diren jarduerak proposatuko dira.

Eduardo Andrade manifiesta que el grupo socialista en su campaña electoral recoge expresamente su oposición a las 8.000 viviendas de Andra Mari, con lo cual admite la existencia de esa imposición. Al equipo de gobierno le critica y le parece desolador que mantenga la posibilidad de la construcción de 8.000 viviendas en Andra Mari al aplicar el PTP en Getxo y no defienda la autonomía municipal que es lo que defiende el grupo popular y por eso pide un pliego de condiciones para la redacción de la revisión del PGOU que no esté mediatizado por normativas ajenas. El grupo popular indica que quiere un Getxo para los vecinos de Getxo e inicialmente construir las viviendas necesarias en el suelo urbano y también sacar el mercado las viviendas vacías y una vez agotadas esas vías sería cuando se plantearía actuaciones en el resto del suelo del municipio.

Luis Almansak esan du ondo ikusten duela talde popularraren jokaera, dagoeneko ez baitu esaten 8.000 etxebizitza eraikitzea derrigorrezkoa denik. Halaber, gobernu-taldearekin bat dator; alegia, garrantzitsuena da Getxorako zer-nolako hiri-eredua nahi den erabakitzea.

Luis Almansa interviene para manifestar que ve positiva la actuación del grupo popular que ya no dice que es obligatoria la construcción de las 8.000 viviendas y coincide con el equipo de gobierno en que lo importante es decidir qué modelo de ciudad se quiere para Getxo.

Mozioa bozkatu dute, eta baztertua izan da ondorengo emaitza medio: PPren aldeko 9 boto, EAJ eta PSE-EEren aurkako 12 boto eta Bilduren 4 abstentzio.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 9 votos a favor PP, 12 votos en contra PNV, PSE-EE, 4 abstenciones Bildu.

**130.- BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: AUZITEGI NAZIONALAK HERRIKO GAZTEAK EPAITU.**

Maitane Nerekan andreak ondorengo mozioa irakurri du.

*"Joan den irailaren 19. 20 eta 21ean herri honetako 11 gazte epaituak izan ziren Espainiako Audientzia Nazionalean. 2007ko urriaren 16an Baltasar Garzonen aginduz hasitako sarekada polizial batekin abiatutako prozesu judizialaren barnean kokatuta dago epaiketa.*

*2007ko urriaren 16an, Polizia Nazionala herriko hainbat gazteren etxeetan sartu zen eta indarrez eraman zituen; euren kontra zein etxean aurkitzen ziren senide eta lagunen kontra jarrera bortitza izan zutela salatu zuten getxoztarrek. Hurrengo bost egunetan poliziaren egoitzetan inkomunikaturik izan zituzten gure auzokideak eta tarte horretan tortura ikaragarriak jasan zituztela salatu zuten, ondorio fisiko zein psikologiko nabarmenak utzi dizkienak.*

*Madrilen burututako epaiketan "erakunde terroristako kide" eta "terrorismo delituak" egitea leporatzen zaie, froga nagusitzat inkomunikazio aldian torturaren bidez eragindako autoinkulpazioak erabiliz. Gauzak horrela, epaiketaren zain daude auzipetuak.*

*Bildutik, gazteen kontrako kriminalizazio kanpaina errepresibo neurrigabe baten barruan kokatzen dugu gure herrikideen aurkako epaiketa hau. Salbuespeneko epaitegia den Audientzia Nazionalean epaituak izan dira, gizakien oinarrizko*

**130.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/JUICIO EN LA AUDIENCIA NACIONAL A JÓVENES DE LA LOCALIDAD**

Maitane Nerekan da lectura a la siguiente moción:

*"Los pasados días 19, 20 y 21 fueron juzgados en la Audiencia Nacional española once jóvenes de la localidad. El juicio se halla inscrito dentro del proceso judicial iniciado tras la redada policial ordenada por Baltasar Garzón en fecha 16 de octubre de 2007.*

*En dicha fecha, la policía nacional entró en las viviendas de varios jóvenes y se los llevó a la fuerza; según denunciaron vecinos getxoztarras, su actitud fue violenta frente a ellos y los familiares y amigos que se encontraban en las viviendas. Los posteriores cinco días mantuvieron a nuestros convecinos incomunicados en dependencias policiales y en el ínterin, según denunciaron posteriormente, sufrieron enormes torturas que les han causado secuelas somáticas y psíquicas evidentes.*

*Durante el juicio llevado a cabo en Madrid, han sido imputados de ser "miembros de organización terrorista " y de comisión de "delitos de terrorismo", fundamentados en las autoinculpaciones obtenidas tras la denuncia de tortura y utilizadas como prueba fundamental. En este orden de cosas, se hallan procesados a la espera de juicio.*

*Bildu sitúa este juicio contra nuestros coterráneos dentro de una inmensa campaña represiva de criminalización de los jóvenes. Han sido juzgados en la Audiencia Nacional, tribunal de excepción, tras vivir el período de incomunicación que pone en*

*eskubideak arriskuan jartzen dituen inkomunikazio aldia bizi ondoren eta kontuan hartu ez diren tortura bortitzen salaketak egin eta gero.*

*peligro los derechos fundamentales de las personas y tras las denuncias de horribles torturas que no han sido tenidas en consideración.*

*Inon eta inoiz eta, are gutxiago, Euskal Herria gatazka polítiko eta indarkeria bake bidera eta aterabide demokratikora eramateko aukera duen garai honetan, Bildutik ez dugu onartuko oinarrizko eskubideen kontrako tamainako erasorik.*

*Nunca ni en ningún lugar, menos aún en estos tiempos propicios a conducir a Euskal Herria desde el conflicto político y desde la violencia a la vía pacífica y a las soluciones democráticas, Bildu no va a consentir semejantes agravios a los derechos fundamentales.*

*Horregatik, Getxoko Osoko Bilkurari ondoko akordio proposamena luzatzen diogu:*
*Getxoko Bilkura honek*

*Por todo ello, Bildu propone al pleno de la corporación la adopción del siguiente acuerdo:*

*La corporación en pleno:*

*1. Elkartasuna adierazten die 11 getxoztarrei eta euren senideei jasan izan ahal dituzten eskubide urraketak salatuz.*

*1. Manifiesta su solidaridad a los once getxoztarras y a sus familiares denunciando la posible violación de derechos que han podido sufrir.*

*2. Inoren aurkako mehatxu) presio, atxiloketa eta tortura mota guztiak desagertzea eskatzen du, baita inkomunikazio aldia ere; horren defentzan eragile aktiboa izango da Osoko Bilkura hau.*

*2. Solicita la desaparición de todo tipo de amenaza, presión, detención y tortura practicadas contra persona alguna, incluido el período de incomunicación; en su defensa, esta corporación actuará activamente.*

*3. Auzitegi Nazionala bezalako salbuespeneko epaitegiak eta salbuespen legeak desagertzea eskatzen du.*

*3. Solicita la desaparición de los tribunales excepcionales, la Audiencia Nacional por caso, y de las leyes de igual carácter.*

*4. Bakerantz garamatzan garai politiko honetan gazteen kontrako erasoak salatzen ditu."*

*4. En fin, hace una denuncia de los ataques infringidos a los jóvenes durante este tiempo político anhelante de paz."*

Iñaki Gamerok adierazi du alderdi popularrak aurkako botoa emango duela edukiarengatik. Bildu, Udaletxean dagoenetik, arazo-mota batzuetaz eta era horretako mozioetaz bakarrik kezkatzen da. Aldiz, ez du inolako interesik erakusten bestelako arazoetaz; hala nola, LPP, Gobela ibaia, e.a. Zentzugabea ikusten du mozioaren

Iñaki Gamero indica que el grupo popular va a votar en contra por su contenido, recalca que le supone una desilusión que Bildu desde que está en el Ayuntamiento sólo se preocupa de un tipo de problemática y de este tipo de mociones, mientras que no manifiesta ningún tipo de interés respecto a otros problemas como

edukia, eta, edonola ere, epaitegiek konpondu beharko dute gai hori. Zerbait positiboa bilatzekotan, soilik bat dator mozioan esaten duenean bakerantz garamatzan garai politikoan gaudela. Garai honetan, Bilduren mozioan gustatuko litzaioke ETAren amaiera eskatzea, eta mozio hori alderdi popularrak babestuko luke. Bilduren lehentasunek desengainatzen dute, hemen aurkeztutako mozioak bezalakoak nahi baitituzte, udalerriko benetako arazoez kezkatzen ez diren bitartean (LPP, Gobela ibaia, enplegua sortzea, e.a.).

